Hondarribia. 08:00etan, Alde Zaharrean eta Puntalean, Hondarribiko Txistu Taldearen alborada.

Errenteria-Oreeta. 10:00etan, erdiguneko kaleetatik, Errenteriako Udala Txistu Taldearen kalejira.

Bestelakoak

Hondarribia. 10:00etatik, kirol kaian, artisauen azoka.

Lezo. 11:30ean, Altamiratik hasita, Olentzero eta Mari Domingi opariak banatzen hasiko dira, Gurutze Santuaren plazaraino.



Ane Espina Errasti (2003, Lezo)

Ane Espina Lezon jaioa, herriko musika eskolan hasi zen bere musika ikasketekin. Ondoren Errenteriako kontserbatorioan egin zituen bere gradu erdiko ikasketak Francisco Herrero irakaslearekin. Ikasketa Raffaela Acellarekin ikasi zuen aldi berean 2016-2021 urte artean.

Urte horietan hainbat proiektutan parte hartu zuen: EIO orkestra, EGO orkestra eta baita hainbat lehiaketetan ere. 2021ean Euskal Herriko Musikari Gazteen lehiaketan garaile atera zen eta sari berezia ere lortu zuen. Horri esker Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin bakarlari gisa jotzeko aukera izan zuen joan den urteko Martxoan. Hainbat ikastarotan parte hartu du izen handiko irakasleekin: Kristoffer Dolatko, Sergio Castro, Sergey Ostrovsky, ... Aurten biolin ikasketak hasi ditu Basilea, Suitzan Barbara Doll irakasle duelarik.




Garazi Goñi Santamaria (1991, Donostia)

Piano ikasketak Zurriola Musika Eskolan hasi zituen eta Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan eskuratu zuen Erdi Mailako titulua Cristina Navajas eta Maruxa Lorente irakasleekin. 2013an, Goi

Mailako Piano Ikasketak amaitu zituen Escola Superior de Música de Catalunya (ESMUC) María Jesús Cresporen gidaritzapean. Ondoren, urtebetez, Budapesteko Franz Liszt Academy-n izan zen graduondoko bat burutzen Borbély László eta Gábor Eckhardt irakasleekin. 2017an, Madrilgo Centro Superior Katarina Gurska-n, Bakarkako Interpretazio Masterra eskuratu zuen Nino Kereselidzeren eskutik. Bi espezializazio ikastaro burutu ditu Musikenen, ganbera musika eta pianista laguntzaile alorretan, eta baita Brasilgo UNIRIO-n ere (Universidade Federal do Estado do Rio de Janeiro).

Hainbat lehiaketatan saritua izan da, beka ezberdinak jaso ditu eta ikastaro ugarietan parte hartu du izen handiko irakasleekin: Diana Baker, Guigla Katsarava, Rita Wagner,...

Pianista errepertorista bezala egin du lan Gasteizko, Donostiako eta Iruñeako kontserbatorioetan, eta Musikeneko Interpretazio Masterreko kolaboratzailea izan da.



“TOMAS GARBIZU” LEZOKO
UDALAREN MUSIKA ESKOLA

GANBERA MUSIKA GAKONTZERTUA

- **EGUNA:** 2022ko abenduak 30 (ostirala).
- **ORDUA:** 19:00etan.
- **LEKUA:** Gezala auditorioa.

EGITARAUA

- ❖ **SONATA NO.1 IN G MINOR, BWV 1001. ADAGIO**
J.S.BACH (1685 - 1750)
- ❖ **CONCERTO NO.4 IN D MAJOR (ALLEGRO).**
W.A.MOZART (1756 - 1791)
- ❖ **SONATA NO.4 IN A MINOR OP.28 (PRESTO).**
L.V.BEETHOVEN (1770-1827)
- ❖ **CONCERTO IN D MAJOR, OP.35, 1ºMOV.**
P.L.TCHAIKOVSKÝ (1840 - 1893)

ANE ESPINA ERRASTI (BIOLINA)
GARAZI GOÑI SANTAMARIA (PIANO)

2023-11-10a

LEZO

256 pertsona daude lanik gabe Lezon

Lanbidek 2022ko abenduaren 31ko datuarekin jasota dituen datuen arabera, Lezon 256 langabe daude, 154 emakume eta 102 gizon. Hala, langabezia tasa orokorra %7,9koa bada ere, nabarmen handiagoa da emakumeena, %9,7koa delako; gizonena %6,2koa da. Hala, langabe gehienak 44 urtetik gorakoak dira, 131 orotara. Oarsoaldeko tasa orokorra %9,16koa da, eta Gipuzkoakoa %8,34koa.

2021eko abenduaren bukaeran Lezoko langabezia tasa %8koa zen, eta 2020aren azken egunean, berriz, %8,9koa. Beraz, bi urtean puntu bat baino gehiagoan jaitsi egin da tasa.

Areto futbol taldeak, zulotik ateratzeko prest

Gaintxu eta Jaixki herriko bi areto futbol taldeak sasoi zailari aurre egiten ari dira. Gaintxu Gipuzkoako Lehen Mailan da, eta sailkapen nagusiko hamalau taldeetatik hamaikagarren dira. Jaixkiri, berriz, Gipuzkoako Bigarren Mailako hamabigarren tokia dagokio gaur arte (14 dira). Beraz, liga bukatu arteko partidetan adi ibili beharko dute bi taldeek baldin eta jaitsiera saihestu nahi badute. Asteburuan Lazkaon jokatu du Gaintxuk, eta Bekoerrotan jasoko du Jaixkik Goierrri taldea. Horiek irabazten badituzte, salbaziorako bidean urrats garrantzitsua egingo dute.



Ane Espina eta Garazi Goñi, Gezalan

Ane Espina goi mailako biolin jotzaile lezoarrak berriro etxean *jokatuko* du larunbatean. 12:30ean hasita, Garazi Goñi pianista donostiarrarekin batera kontzertua emango du Gezala Auditoriumean; Lezoko Udalaren neguko kultur programazioaren barrukoa da musika emanaldia, eta doan. Besteak beste, 2021ean Euskal Herriko Musikari Gazteen lehiaketan garaile izendatu zuten gaztea, eta sari berezia jaso zuen. Sari horri esker, Bilboko Orkestra Sinfonikarekin bakarlarri gisa jotzeko aukera izan zuen joan den urteko martxoan.


Asteburuko kultur agendak, ordea, baditu beste bi jarduera. Bihar, 16:30ean, Lezoko Zinema Tikiaren barruan *Ama Mu etxera itzuli da* animazio filma ikusteko aukera izango dute haurrek. Etzi (igandea), berriz, antzerkiaren txanda: 19:30ean hasita, Teatro del Navegante konpainiak *Loba* obra ekarriko du herriera, Bette Davisen gorabeherekin. 8 euroko prezioa du sarrerak.

Inauterietan iraganera jauzia egingo dute

Piztu Lezo buru-belarri dabil inauterietarako antolaketa lanekin. Iragana gaiari eutsiko diote. Antolatuko dituztenen artean, hilaren 18ko herri afaria dago. Bertan izateko aurrez sarrerak erosi behar direla jakinarazi dute taldekideek, eta horiek Sotxon eta Tiñelun daudela salgai 15 euroan. Igandera arteko epea dago horiek eskuratzeko.

Bihar, Aiton Bordaren urteko batzarra

Aiton Bordako zuzendaritzak bazkide guztiei dei egin die biharko urteko batzar orokorrera ager daitezela, aztergai izango dituzten gaiak garrantzitsuak direlako. Erretiratuaren elkartean bertan egingo dute bilkura, 17:00etan lehen deialdian eta 17:30ean bigarrenetan. Ondoren luntxa izango da. Bestalde, urteko kuotaren kobraketaekin hilaren 14an hasiko direla oroitarazi dute.

An advertisement for a cultural event. It features a photograph of a person in a white, long-sleeved costume with a mask, performing on a stage. The background is dark, and there are other people in costumes visible. The text is in Basque and reads "Justizia Trapujalerentzat! Gora Lezoko inauteriak!". In the bottom left corner, there is a logo for "Lezoko Unibertsitateko Udala" (Lezo University Council) with a stylized house icon.

Lezoko Unibertsitateko Udala

Justizia Trapujalerentzat!
Gora Lezoko inauteriak!

GANBARA MUSIKA 2022 ABENDUA

28

OARSO BIDASOKO HITZA

AGENDA

2022-11-10an

HILAK 10, OSTIRALA

Ikus-entzunezkoak

Irun. 18:45ean, CBA liburutegian, Bechdel zikloaren barruan, *El acontecimiento* film luzea.

Bertsolaritza

Errenteria-Orereta. 23:00etan, Arkaitza tabernan, Arkahitzak saioa Xenpelar Bertso Eskolaren eskutik. Bertsolariak: Ane Peñagarikano, Emaitz Murua, Josu Sanjurjo eta Libe Goenaga.

Bestelakoak

Errenteria-Orereta. 19:00etan, Gaztañoko auzo lokalean, Luis Elberdinek *Orereta-Errenteria* liburua aurkeztuko du.

Irun. 18:00etan, Oteiza-Basterretxea Lantegi Etxean, familiantzako *Hutsunak* izeneko tailerra.

HILAK 11, LARUNBATA

Musika

Errenteria-Orereta. 12:00etan, Herriko Plazan hasita, Lau Haizetararen kantutia jira.

Lezo. 12:30ean, Gezala Auditoriumean, Ane Espina biolin jotzaile lezoarraren eta Garazi Goñi pianistaren saioa.

Irun. 19:00etan, Amaia KZn, Ainhoa Artetaren kontzertua. Sarrerak: 60,90 eurokoa arrunta; 40,90 eurokoa Luis Mariano Lirika Elkarteko bazkideentzat.

Errenteria-Orereta. 20:00etan, Lekuona Fabrikan, La Señora Tomasaren kontzertua. 10 euro.

Pasaia. 21:00etan, Trintxerpeko Mogrambo aretoan, Ternura, Seb Radix, Massa Confusa eta Muare taldeen kontzertua. 8 euro.

Ikus-entzunezkoak

Lezo. 16:30ean, Gezala Auditoriumean, Lezoko Zinema Ttikiaren barruko saioa *Ama Mu etxera itzuli da* animazio filmarekin.

Pasaia. 17:30ean, Donibaneko Juanba Berasategi aretoan, Pasaia Zinema Txikiaren barruan *Supermaskoten liga* animazio filma. Trintxerpetik motora 17:00etan aterako da.

Hondarribia. 20:00etan, Itsas Etxean, *Alcarrás* film luzearen emanaldia. 4 euro.

Bestelakoak

Irun. 10:00etan, Txingudi Ekoetxean, *Bidasoko uharteak* izeneko ibilaldi gidatua.

Oiartzun. 10:00etan, Done Eztebe eliza ezagutzeko bisita gidatua; ondoren, 12:00etan, Arizmendienearen berri izateko eguneko bigarren bisita gidatua.

Errenteria-Orereta. 10:00etan, Lekuona Fabrikan, *Gorputzaren kontzientzia* izeneko tailerra.

Irun. 11:00etan, CBA liburutegian, nerabeentzat (11-14 urte) autoezagutza tailerra Maite Arresek gidatua.

Irun. 12:00etan, udaletxeko areto nagusian, Bidasoa eskubaloitako taldeko presidente izandako Beñardo Garciari Hiriko Urrezko Domina jarriko diote. Streaming bidez zuzeneko egingo du Irungo Udalak bere Youtube kanaletik.

Irun. 19:00etan, Alberto Angera plaza-tik hasita. Irungo Atsegiñaren kaldereroak.

Pasaia. 19:00etan, Antxon, kantu jirako kideen kaldereroak barrutitik.

Errenteria-Orereta. 19:30ean, Alaberga auzotik hasita, Alabergako Auzo Elkartearen kaldereroak.

HILAK 12, IGANDEA

Antzerkia

Pasaia. 17:00etan, Donibaneko Juanba Berasategi aretoan, Tomaxen Abenturak taldearen *Misterioa ikasgelan* haurrentzako antzerkia. 3 euro.

Errenteria-Orereta. 19:00etan, Niesen Kulturgunean, Celestina infernal antzezlan, Teatro Corsario konpainiarena. 9 euro.

Lezo. 19:30ean, Gezala Auditoriumean, Teatro del Navegante konpainiaren *Loba* antzezlan. 8 euro.

Musika

Hondarribia. 08:00etan, Hondarribiko Txistu Taldearen alborada Alde Zaharrean eta Sorotetan.

Errenteria-Orereta. 12:30ean, Herriko Plazan, Errenteriako Udal Txistulari Taldearen inauterietako kontzertua.

Dantza

Errenteria-Orereta. 12:00etan hasita, Herriko Plazan, Beti Prest taldearekin mutxikoak.

Hondarribia. 12:00etan hasita, Damarri plazan, mutxikoak eta Jaiki Hadiren saioa.

LEZO

AGENDA

Kulturala

MUSIKA

11



OTSAILAK 11, larunbata, 12:30ean. Gezala Auditoriuma.

ANE ESPINA & GARAZI GOÑI

DOAN. Euskaraz

ANTZERKIA

12



OTSAILAK 12, igandea, 19:30ean. Gezala Auditoriuma.

LOBA

SARRERA 8 €. Euskaraz



Lezoko Unibertsitateko Udala



AGENDA KULTURALA
(2022 / URTARRILA – EKAINA)

LEZO

AGENDA
Kulturala

2023 // URTARRILA - EKAINA



Lezoko
Unibertsitateko
Udala



Gilera Antzokia
Foro Aldean
Euzko Leuzoko Unibertsitateko
10100 Lezoa (Gipuzkoa)



SARE4
FORO ANTZOKIA
RED VASCA
DE TEATROS

2023-01-13
LEZO

54 ekitaldiko sorta dute Lezoko kultur zaleek aukeran

Lezoko Udalak urtarrietik ekainera arteko kultur programazioaren berri eman du. Antzerkia, dantza, musika, zinema emanaldiak eta Lesoinu daude eskaintzaren oinarrian.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Gozo datoz 2023ko negua eta udaberria, kultura arloari dagokionez behintzat bai. Lezoko Udalak urte hasiberriko lehen bost hilabeteetarako prestatu dituen kultur jardueren berri eman du: 50 jarduera baino gehiago izango dira urtarrietik maiatzara bukaerara arte. «Egitarau zabal eta sakona antolatu du aurten ere udalak. Herriari bizia ematen dioten jarduerak dira, eta herritar denei zuzendua: denetatik eta denentzat egongo da», adierazi du Jesus Mari Martiarena alkateak.

Agenda egikaritzen parte hartu dutenei eskerrak eman dizkie udalak: Tomas Garbizu Musika Eskola, Andreone Udal Liburutegia eta Kultura Saila. Aldi berean, programazioa osatzeko ekarpena egin duten Lezoko Zinema Tikiari nahiz Lezo-Jaizkibel Mendiko Lasterketaren antolatzaileei ere esker on mezua helarazi diete.

Ekitaldi gehienak Gezala Auditoriumak jasoko dituela jakinarazi du alkateak, baina kalean nahiz Tomas Garbizu Musika Eskolan ere zer gozatu izango dela adierazi du. Zehaztasunetan sartuta, orotara 54 kultur ekitaldi antolatu dituztela nabarmendu du Xanti Val Kul-



Etzi, Gezalan, Hika Teatroak *Toto*-ren Euskal Herriko estreinaldia egingo du. Hika Teatroa

tura teknikariak, «horietatik gehienak euskaraz». Egitarau osoaren barruan, haur eta helduentzat antzerkiak, zinema, musika, dantza edota literatur solasaldiak goretsi ditu Kultur teknikariak, baina azpimarra jarri du Lezon klasiko den Lesoinun: martxoaren 17tik 30era izango da aurtengo Lezoko Aste Pedagogiko eta Musikala.

Ilargik eta Iñaki Labakak euren disko berriak aurkeztuko dituzte

Egitarau oso-osoa Lezoko Udalaren webgunean (lezo.eus) kontsulta daiteke, baita HITZA-ren atari digitalean ere (oarsoaldea.hitza.eus).

Hasteko, estreinaldia

Latz hasiko da kultur programazio berri-tua. Etzi (igandea), 19:30ean eta Gezala Auditoriumean, Hika Teatroa konpainiak *Toto* lanaren Euskal Herriko estreinaldia egingo du Lezon, Agurtzane Intxaurrek zuzendutakoa. Miren Gojenola eta Asier Hernandez aktoreek eramango dute Gezalako oholtzara. Ma-

falda Bellidoren *Chucho* antzezlanean dago oinarrituta *Toto*, eta Kepa Errastik ekarri du euskarara. Antzerkiaren atalean, nabarmentzekoak dira aldi berean *Tuppersex* (otsailaren 25ean), *El nadador de aguas abiertas* (maiatzaren 7an) eta *Sexberdinak* (maiatzaren 14an) lanak. Larunbat eta igande askotan jasoko ditu Gezalak antzerkiarekin, dantzarekin, zinemarekin eta musikarekin lotutako emanaldiak.

Musikan sakonduz, eta Lesoinuz gain, Lezoko bi abeslarik euren diskoen berri emango dute sorterrian: Ilargik Beldurrarekin dantzan sormen lana hilaren 29 zabalduko du lezoarren artean (19:30ean, Gezalan), eta Iñaki Labakak, berriz, otsailaren 4an (19:30ean, Gezalan) emango die astindua Itzultzeko garaia bere lehen disko hamahiru kantuei.

Udalak oroitarazi du Gezalako saioetarako beharpenak eta bestelako abantailak eskuratzeko aukera dagoela Gezala Lagun Txartelarekin. 25 euroko prezioa du, eta adibidez, aretoan diren ekitaldi guzietan hiru euroko deskontua dute horren jabeek. Bertako ohiko sarre-ra zortzi eurokoa izaten da. X

LEZOKO



KANTUJIRA



**URTARRILAK 21, larunbata
12:30ean, Aiton Bordan.**

Anima zaitez!!!

1. IDUZKI DENEAN

Iduzki denean, zoin den eder itzala!
Maitia, mintzo zira, plazer duzun bezala:
egiten duzula mila disimula, inorant zirela;
erraiten duzula bertzetaik naizela, faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti jarraiki zait ondotik,
erraiten zautala, ez dut bertze maiterik;
hitzer fidaturik nago tronpaturik, gaixoa tristerik;
ez dut eiten lorik, ez jan edan onik, maitia zuregatik.

Oi! ene maitia, nik ere zuregatik,
pasatzen dizut nik, zonbeit sabeleko min;
ezkonduz zurekin, samur ait'amekin behar nindeite jin;
ez dakit zer egin, ez eta nola jin, nik neure_ etxekoekin.

Oi! ene maitia, nun duzu_izpiritua,
fediaren jabe aita deraukazuia?
Atxikazu fedia, maita bertutia, libra kontzientzia;
munduko bizia labur da, maitia, ez zaitela kanbia!

2. GALERIANOAREN KANTA

**Kantatzera nihazu, alegera gabe,
ez baitut probetxurik, tristaturik ere;
nehun ebatsi gabe, gizonik hil gabe,
sekulakotz galerak enetako dire.**

Mila zortzi ehunta hamabortzgarrena,
ni Ahazparnen preso hartu nindutena;
Plumagaineko premu, orok dakitena,
galeretan higatu beharko naizena.

**Ala, zorigaitzeko premu izaitea!
Harek eman baiteraut betikotz kaltea;
aitari galde_eginik sortzeko parte,
galeretan eman nau, hauxe duk dotea!**

Ene aita da gizon kontsideratua,
semia galeretan du segurtatua;
nun nahi otoitzean belaunikatua,
saindu iduri, debru madarikatua!

**Ene lehen_ikusia, Kadet Bordaxuri
Fagore bat banuke, galdetzeko zuri;
Ongi adreza zaitte ene arrebari,
Ene saltzeko zonbat ukan duen sari?**

Aita aintzanean ta arreba ondoko
Osaba burjes hori diru fornitzeko
Ez ordian enetzat bost sei liberako
Galeretan bederen leher egiteko!

3. GOGOAREN BAITAN

Erabaki nuen, tinko ta fermuki,
Ez zitzaidala gertatuko,
Maitasun saretan ez nintzela berriz
Uste gabean eroriko.

Bi begi izpitxu, irripar ezti bat
Izan dira nere galtzaile,
Geroztik hot nabil arantzetan dantzan,
Ezinezko amets sortzaile.

**Zu hor zaude, dantzan, jauzitan,
Zer debru bada pasatzen zait
gogoaren baitan.**

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke
Sorgin bat bilaka banedi,
Ezina egikor aldatzeko aina
Gezurra bihurtzeko egi.

Zer den ona edo zer ote den txarra
Jakin beharko nukelarik
Sumendi gainean erretzen ari naiz
Ba al dago irtenbiderik ?.

Geroak zer dakar, ez dut pentsatu nahi,
Uneak nahi ditut bizi.
Lau egun dira ta bi omen lanotsu
Galtzera ez ditut nahi utzi.

Hitzaren jokoan, itxura emanaz,
Gorde nahiko nuke dena.
Biluzia nauzu izan zarelako,
Egoera hunen sormena.

4. EGUN SENTIA


Eguzkiaren argia leihopetik sartzean
pozez ta_alaitasunez esnatuko gera
txorien abestiekin alaitutako_eguna
gizonen gorrotoakin hondatuko da_eguna.

**Ibiliko gera alkarri kalte_eginaz
ustez lagunik handienak aurrez ondo_hitzezin;
Batzen izerdirekin besteek diru_eginaz
egia esan duena giltzapera emanaz.**

Gauza_horiek ikusteko nola esnatzen gera
gauza_horiek egiteko nola jaikitzen gera.
Txoriek alaitutako eguna hondatzeko
hobe genduke_ez esnatu ta bertan gelditu lotan.

**“TOMAS GARBIZU” LEZOKO
UDAL MUSIKA ESKOLA**

**SANTA AGEDA
BEZPERA 2023**



OTSAILAK 4, OSTIRALA

KALEJIRA, Lezoko kaleetan zehar.

**12:30ean,
Musika Eskolan.**

SANTA AGEDA BEZPERAKO KOPLAK 2023

HASIERA

ZORION ETXE HONTAKO DENOI
OLES EGITERA GATOZ
ATERIK ATE OHITURA ZAHARRAK
AURTEN BERRITZEKO ASMOZ.
EZ GAUDE OSO ABERATS DIRUZ
EZTA ERE OINETAKOZ
BAINA EZTARRIZ SANO GABILTZA
TA KANTA NAHI DEGU GOGOZ.

2. DENDETAN

ESKEAN GATOZ, BAINA EZ GERA
EZ IJITO TA EZ PRAILE,
SANTA AGEDAK ATERA GAITU
KALETARA KANTATZAILA.
DENDA HONETAN KAJOITXO ASKO,
DENAK GILTZA TA ZERRAILE,
ESTRAPERLOKO KAJOITIK BOTA
EURUTXO PARE BAT MILE.

4. ETXEKO ANDREARI

ZELAI ERDIAN LOREAK ARGI,
LARROS, KRABELIN TA LILI;
ETXE HONTAKO ETXEKOANDREAK
AMA BIRJIÑA DIRUDI.
ETXE HONTAKO URDAIAZPIKO
ASKO, KAKUTIK ZINTZILIK,
TA LUKAINKA GORRIAK UGARI
BOLTA BETETZEKO GURI.

6.- GURASOEN BAIMENA (HAURRAK)

GURASOEN BAIMENA BADUGU
GAUR ARITZEKO KANTUAN;
OHITURA HAU BAINO EDERRAGORIK;
EZ OMEN DAGO MUNDUAN.
HAREN ITZALA IZAN DEZAGUN
BETI GURE INGURUAN;
BERE LAGUNTZA BEHARKO DUGU
AZTERKETAKO ORDUAN.

1. TABERNETAN

ASPALDI HONTAN URA GARESTI
DABIL ESNE TA ARDOTAN,
MAHATS GUTXI IZAN ARREN, ARDORIK
EZ DA FALTA TABERNETAN.
JESUSEK URA ARDOTU BAZUN
KANAANGO EZTAIETAN,
HORIEN IKASLE AZKARRAK SORTU
ZAIKIO ARDANGELETAN.

3. ETXEKO JAUNARI

MENDI TONTORRAK ELURREZ ZURI,
ATAI ALDEAN LAIHOTZA,
ETXE HONTAKO NAGUSI JAUNA,
URREZKOA DU BIHOTZA.
SANTA AGEDAK KENDU DIGU GAUR
ESKEAN ASTEKO LOTSA,
DIRURIK EZPADA BERDIN ZAIGU
GIZENDUTAKO BILDOTSA.

5.-LEZOKOGAZTETXOAK (HAURRAK)

LEZOKO GAZTETXOAK ELKARTUZ
ORAINTE GOAZ HASTERA;
ASPALDIKO OHITURA BERRITUZ
ETXE BATETIK BESTERA.
KANTA ZAHARRAK BERRI DITZAGUN
GALDUKO DIRA BESTELA;
JENDEAK JAKIN DEZAN GAUR DELA
SANTA AGEDA BEZPERA

BUKAERA

SANTA AGEDA BEZPERA DEGU
EUSKALERRIKO EGUNA
ETXE GUZTIAK KANTUZ POZTEKO
AUKERATUA DEGUNA.
SANTA MAITEA GAUR HARTU DEGU
GURE BIDEKO LAGUNA
HAREN LAGUNTZAZ BETE GENTZAKE
EGUN HONTAKO JARDUNAK. ¡EUP!

Oharra: Sta. Ageda Bezperako koplak.

Otsailaren 4an, larunbata, eguerdiko 12:30ean, Musika Eskolatik Kalejira irtengo da.
(Musika Eskola, Ijurko, Atzekoate, Ixkulin eta Plaza).

Baserritarrez edo arropa ilunarekin (Txapela, zapia eta makila).

OARSO BIDASOKO HITZA
2023-II-03

LEZO

23


OARSO BIDASOKO HITZA

Euskararen gaineko gogoeta, hilaren 9an

Plaza Hutsa iniziatibaren barruko saioa egingo dute Lezon. Herriko ezker abertzaleak saioari zein eduki emango dioten aurreratu du: «Lezon herrigintzatik eta politika publikoetatik euskararen erabileran nola eragin hausnartu nahi dugu». Hilaren 9an izango da (osteguna), 19:30etik 21:00etara, Ibai-Ondon.

Lezoko euskararen erabileraren datuak aztertuko dituzte herritar ororentzat zabalik den batzarrean, eta aurrera begira nola jokatu adosten saiatuko dira. «Lezoko euskararen erabilerarekin kezkatuta bazaude, etorri», esan dute.

Herriko datuez gain, nazio mailako testuingurua eman diote herriko Plaza Hutsaren saioari. «Orain arteko euskararen normalizazio-ereduak goia jo duenaren zantzuak argiak dira. Lezon ere, etorkizuna ez da desberdin ikusten. Euskaraz hitz egitea eta bere alde antolatzea ekintza politiko kontziente izaten jarraitzen du oraindik», esan dute ezker abertzaleko kideek.



Txiki utzi du Gezala Iñaki Labakak

Bihar (larunbata) aurkeztuko du Iñaki Labaka musikariak bere lehenengo diskoa herrian, Itzultzeko garaia. 19:30ean-Gezala Auditoriumean hasiko den emanaldirako sarrerarik geratzen ez dela azaldu du Lezoko Udalak, beraz, txiki gelditu da herriko aretoa, jarraitzaile asko izango ditu abeslariak.

Gaur Gezalan izango den antzerkirako (17:15) badira sarrerak, ordea. Anita Maravillas konpainiak klasiko bati eutsiko dio, *Pintto pintto*. Sarreraren prezioa 3 eurokoa da.

Alexander Garagarza, Ahal Duguren alkategai

Alexander Garagarza izango da maiatzean egingo diren udal hauteskundeetan Podemos-Ahal Duguren Lezoko alkate izateko hautagaia. Pasaitarra da, eta Historian doktorea (Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen ikasketak). «Lezo udalerrri berdinzaleagoa, iraunkorragoa, oparagoa izatea nahi dut, eta Oarsoaldean pisu handiagoa izatea», azaldu du Garagarzak. 2019ko eta 2015eko udal hauteskundeetan Ahal Dugu-Podemos ez zuen zerrendarik aurkeztu herrian.

Lehen ikasketak Pasaia-Lezo Lizeoan egin zituela adierazi du alderdi moreak. «Herritarren parte hartzearen defendatzaile sutua da, aldaketak egiteko tresna politiko gisa», azaldu du Podemosek, alkategaiaren soslaia berri ematean. Hala, Garagarzak azaldu du udalak «herritarren baliabide nagusienetako bat» izan behar duela, eta «herritarren partaidetzarako mekanismoak» aldarrikatu ditu.

260 etxebizitza dira eraikitzeaz Lezon

Lezoko Udalak, udalerrian eraikitzeaz diren etxebizitzak zerrendatu ditu: Altzaten, Olatzarren eta Aralar kalean egingo dituzte, eta orotara, 260 dira. Altzateko udalerria lurretan salmenta libererako 36na etxebizitzako bi dorre, eta babespeko kondizioetan 16ko beste

bat egingo dituzte. Olatzarren, berriz, 120 dira eraikitzen ari diren etxebizitzak: horietatik 30 salmenta libererako dira, 66 babes ofizialekoak (horietatik 33 udal lurzoruan eraikitakoak), eta beste 24 etxebizitza tasatu. Bestalde, Aralar kalean zuzkidurazko 52 etxebizitza egiteko asmoa oraindik indarrean da. Babespeko etxebizitzak esleitzeko prozedura apirilean onartuko du udalak.

Bihar, Santa Ageda bezperako koplak

Santa Ageda bezperako kalejira egingo dute bihar Lezon. 12:30ean abiatuko dira koplak abeslariak Tomas Garbizu Musika Eskolatik, eta bidea Gurutze Santuaren plazan bukatuko dute. Baserritar jantzia eta makila eramateko eskatu diete parte hartu nahi dutenei.

LEZO AGENDA Kulturala



ANTZERKIA



3
OTSAILAK 3, ostirala, 17:15ean.
Gezala Auditoriuma.
PINTTO PINTTO
SARRERA 3 €. Euskaraz

MUSIKA



4
OTSAILAK 4, larunbata, 19:30ean.
Gezala Auditoriuma.
IÑAKI LABAKA
DOAN. Euskaraz

<TOMAS GARBIZU>
LEZOKO UDAL MUSIKA ESKOLA

**16:30EAN,
MUSIKA ESKOLAN.**

**OTSAILAK 04,
LARUNBATA**

TOMAS GARBIZU
LEZOKO MUSIKA ESKOLA

PARTAIDEAK:

- **IOANES SAGARZAZU**
- **ANE ESPINA**
- **IRENE SAGARZAZU**



- **GARAZI GOÑI**



IRAKASLEA:

RAFFAELA ACELLA
BARBARA DOLL

GANBARA MUSIKA **KONTZERTUA**

2º y 3º mov. del concierto op.34 en Sol M

OSKAR RIEDING

Biolina: Ioannes Sagarzazu

Sonata Nº1 en Sol m (Adagio)..... J.S.BACH

Sonata no 4 op 23 en la m.....L.v.BEETHOVEN
--Presto.

--Andante Scherzoso.

- Allegro Molto.

Biolina: Ane Espina

Concierto en Sol M KV 216 1º mov.

W.A..MOZART

Rapsodia no 1 (primera parte).

B.BARTOK

Biolina: Irene Sagarzazu

Concierto en Re M op 35 1ºmov.

P.L. TCHAIKOVSKY

Biolina: Ane Espina

• **PIANOJOLEA;**

Garazi Goñi

IRAKASLEAK:

RAFFAELA ACELLA ETA BARBARA DOLL




**“TOMAS GARBIZU” LEZOKO
UDALAREN MUSIKA ESKOLA**

GANBARA MUSIKA KONTZERTUA

EGUNA: 2023ko Otsailak 04, larunbata.

ORDUA: 16:30ean.

LEKUA: Lezoko Musika Eskola.



GANBERA MUSIKA KONTZERTUA

**OTSAILAK 11,
LARUNBATA**

**12:30EAN,
GEZALA AUDITORIUMA**

TOMAS GARBIZU
LEZOKO MUSIKA ESKOLA

Sarrera doakoa da,
lekuak bete arte.
La entrada es gratuita,
hasta completar aforo.

PARTAIDEAK:

• ANE ESPINA ERRASTI



• GARAZI GOÑI SANTAMARIA



- ❖ SONATA NO.1 IN G MINOR, BWV 1001. ADAGIO
J.S .BACH (1685 - 1750)
- ❖ SONATA N°4 IN A MINOR OP.23
L.V.BEETHOVEN (1770-1827)
 - ❖ PRESTO
 - ❖ ANDANTE SCHERZOSO, PIÙ ALLEGRETTO
 - ❖ ALLEGRO MOLTO
- ❖ CONCERTO IN D MAJOR, OP.35, 1ºMOV.
P.L.TCHAIKOVSKÝ (1840 - 1893)



Ane Espina Errasti (2003, Lezo)

Ane Espina Lezon jaioa, herriko musika eskolan hasi zen bere musika ikasketekin. Ondoren Errenteriako kontserbatorioan egin zituen bere gradu erdiko ikasketak Francisco Herrero irakaslearekin. Ikasketa hauek egin bitartean Raffaella Acellarekin ikasi zuen aldi berean 2016-2021 urte artean.

Urte horietan hainbat proiektutan parte hartu zuen: EIO orkestra, EGO orkestra eta baita hainbat lehiaketetan ere. 2021ean Euskal Herriko Musikari Gazteen lehiaketan garaile atera zen eta sari berezia ere lortu zuen. Horri esker Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin bakarlari gisa jotzeko aukera izan zuen joan den urteko Martxoan. Hainbat ikastarotan parte hartu du izen handiko irakasleekin: Kristoffer Dolatko, Sergio Castro, Sergey Ostrovsky, ... Aurten biolin ikasketak hasi ditu Basilea, Suitzan Barbara Doll irakasle duelarik.



Garazi Goñi Santamaria (1991, Donostia)

Piano ikasketak Zurriola Musika Eskolan hasi zituen eta Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioan eskuratu zuen Erdi Mailako titulua Cristina Navajas eta Maruxa Llorente irakasleekin. 2013an,

Goi Mailako Piano ikasketak amaitu zituen Escola Superior de Música de Catalunya (ESMUC) Maria Jesús Cresporen gidaritzapean. Ondoren, urtebetez, Budapesteko Franz Liszt Academy-n izan zen graduondoko bat burutzen Borbély László eta Gábor Eckhardt irakasleekin. 2017an, Madrilgo Centro Superior Katarina Gurska-n, Bakarkako Interpretazio Masterra eskuratu zuen Nino Kereselidzeren eskutik. Bi espezializazio ikastaro burutu ditu Musikenen, ganbera musika eta pianista laguntzaile alorretan, eta baita Brasilgo UNIRIO-n ere (Universidade Federal do Estado do Rio de Janeiro).

Hainbat lehiaketatan saritua izan da, beka ezberdinak jaso ditu eta ikastaro ugarietan parte hartu du izen handiko irakasleekin: Diana Baker, Guigla Katsarava, Rita Wagner,...

Pianista erreperitorista bezala egin du lan Gasteizko, Donostiako eta Iruñeako kontserbatorioetan, eta Musikeneko Interpretazio Masterreko kolaboratzailea izan da.



“TOMAS GARBIZU” LEZOKO
UDALAREN MUSIKA ESKOLA

GANBERA MUSIKA GAKONTZERTUA

- **EGUNA:** 2023ko otsailak 11, larunbata.
- **ORDUA:** 12:30ean.
- **LEKUA:** Gezala auditorioa.

EGITARRAUA

❖ **SONATA NO.1 IN G MINOR, BWV 1001. ADAGIO**
J.S.BACH (1685 - 1750)

❖ **SONATA Nº.4 IN A MINOR OP.23**
L.V.BEETHOVEN (1770-1827)

- ❖ **PRESTO**
- ❖ **ANDANTE SCHERZOSO, PIÙ ALLEGRETTO**
- ❖ **ALLEGRO MOLTO**

❖ **CONCERTO IN D MAJOR, OP.35, 1ºMOV.**
P.L.TCHAIKOVSKY (1840 - 1893)

ANE ESPINA ERRASTI (BIOLINA)
GARAZI GOÑI SANTAMARIA (PIANO)

OIARTZUN



Joana Mendiboure Garaier, Oiartzungo EH Bilduren alkategaia.

Joana Mendiboure Garaier izango da Oiartzungo EH Bilduren alkategaia

EH Bilduko militanteek aho batez onartu dute joan den astean hauteskunde batzordeak egindako proposamena

ELENA VIÑAS

OIARTZUN. Joana Mendiboure Garaier izango da maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan EH Bilduren alkategaia. Otsailaren 2tik 4ra egindako bozketan, alderdiko militanteek aho batez onartu dute hauteskunde batzordeak egin zuen proposamena.

Koalizioaren aburuz, Oiartzun

hobea eraikitzeko herrigintzan esparru ezberdinetan egindako lanagatik eta arlo profesionalen duen eskarmentuagatik azken urteetan EH Bilduk Udalean egin duen lanari jarraipena emateko zerrendaburu «ezin hobea» da.

Herrigintzan ibilbide luzea

46 urte ditu eta Ugaldetxo auzoan bizi da. Baionan egin zituen Euskal Ikasketak, eta Humanitateak eta enpresa ikasketak, berriaz, Eskoriatzan. Euskalgintza, kultura, komunikazioa eta kudeaketa izan dira bere lan-esparruak: besteak beste Udako Euskal Unibertsitateko prentsa-

bulegoan, Elhuyar aldizkarian eta Bertsozale Elkartearen egin du lan. 2006an komunikazio enpresa propioa sortu zuen Oiartzunen. Gaur egun Orioko Herri Ikastolako zuzendaritzako kide eta irakasle da.

Ibilbide profesionalaz gain, herrigintzan ibilbide luzea duela nabarmendu dute EH Bildutik, elikadura burujabetzan eta feminismoan bereziki. Labore Kontsumo elkartearen lehendakaria da. Oiartzungo asanblada feministak antolatutako Ekonomia Feministako tailerren ere parte hartu zuen Oiartzun eta inguruetako beste emakumeekin batera.

Lau udaltzain berri hautatzeko prozesurako izen-ematea zabalik dago udaletxean

E.V.

OIARTZUN. Udalak martxan du lau udaltzain berri hautatzeko oposizio prozesu propioa. Dagoeneko aurkeztu daitezke parte-hartzeko eskaerak. Udaletik adierazi dutenez, «urteak» daramatzate «udaltzaingo-eredu propioa bultzatzen, hurbilekoa, herritarren

zerbitzura dagoena eta auzotarrekin elkarlana oinarri duena, inplikatu, komunitarioa, euskalduna». Horregatik, EAEn udaltzain agenteak hautatzeko egiten diren prozesu orokorrak erabili beharrean, Udala izan da deialdia egin duena. «Herritarrak laguntzea, argibideak eta arreta eskaintzea, auzotarrekin lan egitea, jendea

babestea, bizikidetzat bultzatzea eta espazio publikoak zaintzea izango da beraien egiteko nagusia. Hau dela eta, hautaketa prozesuan proba fisikoek baino (gai edo ez gai baloratuko dira), trebezia sozialek garrantzia handiagoa izango dute (elkarriketekin eta test psikoteknikoekin baloratuko dira)», diote.

LEZO

El concurso de vídeos Motxian Eby comenzará el martes

La actriz y bailarina Sua Enparantza retará a los jóvenes de Lezo y el resto de Oarsoaldea de entre 12 y 17 años de edad a superar distintas pruebas

E. VIÑAS

LEZO. El concurso de vídeos Motxian Eby se dispone a vivir una nueva edición. Será el próximo día 14 cuando esta arranque de la mano de la actriz y bailarina vasca Sua Enparantza (Donostia, 2003), quien retará a todos los jóvenes de la comarca de Oarsoaldea, con edades comprendidas entre los 12 y los 17 años, a superar diferentes pruebas y juegos. Las mejores propuestas con las que los participantes respondan podrán ganar distintos premios.

Así lo informan los organizadores de esta iniciativa a través de una nota de prensa, en la que explican, asimismo, que los retos se propondrán los días 14 y 28 de este mes de febrero en la página web www.motxianeby.eus.

«Por poner un ejemplo, se propondrá una música o melodía para la que habrá que inventar o crear una coreografía. Serán retos de ese tipo. Las personas participantes deberán

elaborar y enviar vídeos de una duración máxima de dos minutos», señalan los responsables de Motxian Eby.

Varios premios por cada reto

Los trabajos deberán enviarse a través de la página web www.motxianeby.eus. Las condiciones para participar en el certamen, así como el resto de cuestiones relativas a su convocatoria, se encuentran disponibles en la mencionada página web.

En cuanto a los plazos contemplados para enviar los trabajos, el correspondiente al primero de los retos se mantendrá abierto hasta el 24 de febrero; mientras que el del segundo reto, se prolongará hasta el 10 de marzo.

La elección de los premiados corresponderá a la actriz conocida por su papel en la serie de televisión 'Irabazi arte' y a los jóvenes del programa Kuadrillategi. El mejor vídeo por reto (uno por cada quincena), recibirá un premio de 150 euros. Al finalizar los dos retos, el mejor de todos los vídeos será distinguido con 200 euros. Además, el mejor vídeo de cada localidad recibirá 50 euros.

La Comisión de Euskera de Oarsoaldea anima a los jóvenes de Lezo, Oiartzun, Errenteria y Pasaia a participar en el concurso.

EN BREVE

MÚSICA

Ane Espina y Garazi Goñi actúan en Gezala

Ane Espina y Garazi Goñi ofrecerán un concierto este sábado en Gezala Auditorium. Será a partir de las 12.30 horas cuando tenga lugar el recital que tuvo que posponerse durante las pasadas Navidades. El público po-

drá disfrutar escuchando a la lezoarra Ane Espina al violín y a la donostiarra Garazi Goñi al piano. Espina ha participado en varios cursos con profesores de renombre, como Kristoffer Dolatko y Sergio Castro. Goñi ha sido premiada en varios concursos, ha recibido diferentes becas y ha participado en cursos con profesores de renombre como Diana Baker.

MONTAÑA

Alex Txikon participará en una tertulia

El montañero vasco Alex Txikon visitará este mes Lezo para compartir sus experiencias con los vecinos de esta población. Será el próximo día 23 cuando protagonice una tertulia que tendrá lugar en euskera, a partir de las 19.30 horas, en el Auditorio Gezala.

CORRESPONSALÍA

Envío de notas y avisos a DV Lezo y Oiartzun

Los lectores que deseen hacer llegar sus notas de prensa, avisos, cartas y demás informaciones a la corresponsalía de EL DIARIO VASCO en Lezo o en Oiartzun pueden hacerlo enviando un email a la dirección de correo electrónico evinas@diariovasco.com.





“TOMAS GARBIZU” LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA

INAUTERIAK 2023

OTSAILAK 16, osteguna: “OSTEGUNZURI”
Trapujaleren jaitsiera, 19:30ean.

OTSAILAK 17, ostirala: “OSTIRALORI”
Zirikuen kalejira, 17:30ean.

OTSAILAK 21, asteartea: “ASTEARTEBELTZ”
Epaiketa, 19:00etan. (“Zirikuak” Liburuaren aurkezpena).



ASTEARTEBELTZ - Otsailak 21

15:15 Lezo Herri Eskolako ikasleen eskutik, **epaiketa txikiaren antzezpena** eskolako jolastoki estalian. Hirugarren zikloko ikasleek Trapujalaren epaiketa eta erreketak antzetzuko dute.

Escenificación del juicio txiki por parte de alumnas y alumnos de tercer ciclo de Lezo Herri Eskola en el patio cubierto de la escuela.

16:00 Txokolatada Lezo Herri Eskolan. Chocolatada en Lezo Herri Eskola.

19:00 Trapujalaren epaiketa Gurutze Santuaren plazan. Jarraian **herio bidaia**. Juicio a Trapujale en Gurutze Santuaren plaza. A continuación, la comitiva fúnebre.

TRAPUJALE

ABESTIA - CANCIÓN

Ostegunzuri trapuz estaliz,
ostiralori dantza eta kanta,
larunbatgorri egun sutsu,
igandeubel denok goibel,
ta astelehenarre
salaketa, salaketa, salaketa
beltza, salaketa, salaketa, salaketa
zuri, hori, gorri, ubel, arre, beltza



Trapujalaren abestia eta dantza
Canción y baile de Trapujale



DESKARGATU LEZOKO APP-A
DESCARGATE LA APP DE LEZO



LEZO
2023



LEZO



Asteartera arte luzatuko dira Lezoko inauteriak. Urko Etxebeste

Lagunekin egon nahi du egunotan Trapujalek

Atzo hasi ziren Lezoko inauteriak, Trapujalaren etorrerarekin eta Joxe Jabier Anuariz oroitzeko ekitaldiarekin. Gaur goizean, ikastetxeetako ikasleen desfileak izango dira, eta biharkoa da egunik osoena.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Atzo hasi ziren Lezoko inauteriak. Asteartera arte behintzat herrian izango dira Trapujale eta haren ondokoak —zintzoak eta gaiztoak— herrian. Asteartebel-terako epaiketa iragarrita dago. Ikusi beharko da aurtengoan ere Trapujale errudun izendatzen duen ustez inpartzial den epaileak. Edonola ere, ederki asko hasi ziren atzokoan moztaroen festaren barrukoak, aitortza batekin: Trapujale Taldearen laguntzaile izan zen Joxe Jabier Anuariz gogoan izan zuten hasierako ekitaldian, 2021eko azaroan hil zen. Haren senideek jaso zuten aurtengo oroigarri berezia.

Bestelakoan, gaur goizean herriko ikastetxeetako ikasleen ardurapean izango da inauteri giroa, Lezo Herri Eskolako, Lezo Institutuko eta Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleek euren desfile eta ikuskizunak egingo dituztelako (ondoko ze-

rrendan ikus daitezke inauterietako ekitaldi den-denak). Arratsaldean, Lezoko Euskal Dantzazaleek *Erronkariko dantzak* ikuskizuna egingo dute Gurutze Santuaren plazan.

Biharko Larunbatgorrirako bi zita nagusi. Lehena, 17:00etan, herriko ikastetxeetako gurasoen elkarteen eta Txirbillaren ekimenez Larunbatgorri Kalejira eta, urtetik urtera (pandemia aurretik bai bederen) indartzen ari dena; bigarrena, Piztu Lezok antolatu dituen karropoteo kalejira, moztaroen festaren aurkezpenean, eta herri afaria.

Etzirako, deialdi bakarra: Murixkak kalejira egingo du taldearen lokaletik, Gurutze Santuaren plazaraino.

Jesus Mari Martiarena Lezoko alkateak pozarren iragarri zuen inauterien aurkezpenean «betiko inauteriak» herrira bueltan direla. «Pandemia aurreko inauterien egitaraua antolatzeko aukera izango dugunez, oso pozik gaude. Festa giroan egoteko aukera bikaina da». ✕

EGITARAUA

GAUR, OSTIRALORI

10:00. Herrian zehar, Lezo Herri Eskolako eta Lezo Institutuko ikasleen kalejira.

10:30. Lezo Herri Eskolako eta Lezo Institutuko 'Musika estiloak' ikuskizuna Bekerrota kiroldegian.

11:00. Pasaia-Lezo Lizeoko ikasleen Trapujale Festa Gurutze Santuaren plazan (eguraldi txarrarekin, Karlos Saldisen).

14:00. Inauterietako bazkaria Aiton Bordan.

17:30. Gurutze Santuaren plazan hasi eta bukatuta, Sorgin Dantza eta Zirikuen kalejira.

19:30. Gurutze Santuaren plazan, 'Erronkariko dantzak' ikuskizuna Lezoko Euskal Dantzazaleen eskutik (eguraldi txarrarekin, Karlos Saldisen).

20:00. Kartelada.

BIHAR, LARUNBATGORRI

12:30. Aiton Bordatik abiatuta, inauterietako kantu jira.

17:00. Lopenen hasita, Lezo Herri Eskolako nahiz Pasaia-Lezo Lizeoko guraso elkar-teeak, eta Txirbilla Aisialdi Taldeak elkarlanean antolatuta, Larunbatgorri Kalejira.

18:00. Karlos Saldise plazatik hasita, Piztu Lezoren karro-poteoa.

20:30. Gurutze Santuaren plazan, Piztu Lezoren moztaroen festaren aurkezpenean.

21:00. Koldobike Gezala pilotalekuan, moztaroen afari herrikoia.

23:30. Elektrokela elektrotzaranga.

ETZI, IGANDEUBEL

11:15. Murixka Dantza Taldearen lokaletik hasita, kalejira. Ondoren dantza emanaldia Gurutze Santuaren plazan.

HILAK 20, ASTELEHENARRE


17:00. Lezoko Eztandak-en desfilea herri-tik. Ondoren, dantzaldia Gurutze Santuaren plazan

HILAK 21, ASTEARTEBELTZ

15:15. Lezo Herri Eskolan, Trapujalaren epaiketa txikia. Ondoren, txokolatada.

19:00. Gurutze Santuaren plazan, Trapujalaren epaiketa. Jarraian, Herio Bidaia Lezoko inauteriak bukatzeko.

LEZO



Guillem Albà durante la representación de 'Calma', el espectáculo teatral que podrá verse este domingo en Gezala Auditorium. DAVID RUANO

«Pretendo que el público se ría con 'Calma', que sonría y que se emocione»

Guillem Albà actuará este domingo en el Auditorium Gezala con un montaje en el que prescinde de las palabras

ELENA VIÑAS

LEZO. El polifacético Guillem Albà (Vilanova i la Geltrú, 1985) visitará este domingo Lezo dispuesto a ofrecer, a las 19.30 horas, una representación de 'Calma', el montaje en el que cuenta, solo y sin palabras, un hecho tan complejo y, al mismo tiempo, tan cotidiano como es la prisa.

En declaraciones a DV, Albà se muestra ilusionado con hacer escala en esta población. «Me gusta poder actuar en sitios grandes y pequeños. De hecho, cuando preparo mis espectáculos, lo hago pensando en poder ir al mayor número de lugares posibles».

A la hora de hablar de 'Calma', se resiste a definir «mediante etiquetas» la obra que llevará a escena en el Auditorio Gezala, cuyas entradas están a la venta al precio de 8 euros. «Cuando la gente la vea, se sorprenderá, reirá, llorará... Lo que busco con este montaje es poder ir de un color a otro. Pretendo que el público se

ría, buscar su sonrisa y que se emocione», señala.

Para ello, recurre a diferentes técnicas que le permiten expresar lo que desea en cada momento. Con el clown como bandera, y a través de los títeres, el gesto, las sombras y la música, hace que los espectadores se cuestionen su día a día y el propio viaje vital.

Expresar todo lo que deseaba en 'Calma' sin palabras «ha sido un reto». «También me parecía algo bonito porque las palabras las utilizamos a diario, pero en el teatro son muy directas, te entran de lleno al cerebro. En cambio, contar algo sin palabras crea

la oportunidad de que te entre por otro lugar que no sea la cabeza. Por ejemplo, desde la emoción. Creas un espacio poético que da pie a que la gente tenga su propia versión», manifiesta.

Premio Max 2022

Guillem Albà fue galardonado en 2022 con el Premio Max a la mejor dirección. Este año está nominado junto con otra veintena de profesionales. «Me gusta que sea en la categoría de mejor actor por un papel sin palabras. Es un reconocimiento a todos los que hacemos este tipo de teatro», concluye.

OIARTZUN

Autokonposta etxean egiten hasiko dira herriko zortzi familia gehiago

E.V.

OIARTZUN. Etxean konposta egiten hasiko dira zortzi familia gehiago. Etxean sortutako materia organikoa bertan duten lurzatian kudeatuko dute hemendik aurrera. Hondakin horiek lehengai bihurtu eta ongarri moduan erabiltzeko aukera izango dute horrela. Nola egin erakusteko ikastaroa eskaini die Udalak. Azalpenen ondoren konposta egiteko ontzia eta aireztatagailua ere eman die herritar hauei. Autokonposta egiten duten etxebizitza hauek %20ko hobaria jasoko dute hondakinen tasan. Udalak gogorarazi du etxean lurzattia ez duten herritarrek ere badutela auzokonposta egiteko aukera. Interesa duen edonork atez ateko bulegoan eskatu dezake informazio gehiago.

LABUR

Zuhaitz Eguna egingo dute larunbat honetan

Larunbatean aurtengo Zuhaitz Eguna izango da. Oiartzunen baso-eremua berreskuratu eta herriko haurrak basoaren baliatzeko antolatzen du Udalak egun hau, herriko ikasleekin laguntzarekin. Aizegainen landatuko dituzte aurten bertako haritzak. 10:15ean hasiko dituzte lanak. Bertara autobusez joateko aukera izango dute parte hartzaileek. 10:00etan aterako da Haurtzaro ikastolako aparkalekutik. Bukatzerakoan hamaiketako goxo-goxoa eskainiko da.

Lezo dijo adiós a sus Carnavales con el juicio a Trapujale en la plaza


E.V.

LEZO. La plaza del Santo Cristo fue escenario del ya tradicional juicio a Trapujale. Con este acto, que no ha podido celebrarse en los últimos años, se puso punto final a seis días de festejos de los que han disfrutado al máximo los lezoarras de todas las edades, desde niños a jubilados.



Dos escenas del juicio a Trapujale que tuvo lugar a últimas horas del pasado martes en Gurutze Santuaren plaza.

LEZOKO



KANTUJIRA



**OTSAILAK 18, larunbata
12:30ean, Aiton Bordan.**

Anima zaitez!!!

Musika Eskolan eskuratu daitezke.

<TOMAS GARBIZU>
LEZOKO UDAL MUSIKA ESKOLA

***16:30EAN,
MUSIKA ESKOLAN.***

***OTSAILAK 18,
LARUNBATA***

TOMAS GARBIZU
LEZOKO MUSIKA ESKOLA

PARTAIDEAK:

- **IOANES SAGARZAZU**
- **IRENE SAGARZAZU**
- **DAVID BERGMAN**
- **PAUL MUÑOZ**



- **ESTHER BARANDIARAN**

IRAKASLEA:

RAFFAELA ACELLA

JULEN IZARRA

GANBARA MUSIKA **KONTZERTUA**

Concierto en Sol M 1.mov..... OSKAR RIEDING

Biolina: Ioannes Sagarzazu

Perpetuum Mobile..... OTTOKAR NOVACEK

Concierto en Sol m 1º mov.MAX BRUCH

Biolina: David Bergman

Fantaisie impromptu. ANDRE JOLIVET

Scaramouche mov.2 y 3....DARIUS MALHAUD

Historia del tango..... ASTOR PIAZZOLA

Bordel 1900; Cafe 1930

Saxofoia: Paul Muñoz

Preludio de la Partita en Mi M J.S. BACH

Concierto en Sol M KV 216 1º mov. W.A.MOZART

Rapsodia no 1 B.BARTOK

Biolina: Irene Sagarzazu

• **PIANOJOLEA;**

Esther Barandiaran eta Garazi Goñi

IRAKASLEAK:

RAFFAELA ACELLA ETA JULEN IZARRA




**“TOMAS GARBIZU” LEZOKO
UDALAREN MUSIKA ESCOLA**

GANBARA MUSIKA KONTZERTUA

EGUNA: 2023ko Martxoak 11, larunbata.

ORDUA: 16:30ean.

LEKUA: Lezoko Musika Eskola.



OIARTZUN



Lide Treku eta Alaia Gaztelumendi 'Alaiart' Ugaldetxon egindako muralaren aurrean, Atamitx parean.

AIA taldeak mural bat egin du jaietan animaliak ez erabiltzeko aldarrikatuz

Alaia Gaztelumendi 'Alaiart' artista oiartzuarra da margolan eta azulejuekin egindako sorkuntza honen egilea

ELENA VIÑAS

OIARTZUN. Ugaldetxoko bidegorri zatian AIAren mural berria ikusgai dago. Festetan animalien erabilerarik ez egitea aldarrikatu nahi dute lanarekin. Alaia Gaztelumendi 'Alaiart' artista oiartzuarra izan da taldearen ideia margo eta azulejoekin irudikatu duena.

Animaliak festetan ez erabiltzeko lanketa ezberdinak egin ditu AIAk azken urte hauetan: kontzientziazio kanpainak, hi-

